


. Entzule .

Primeran egin dut




- Publiko gisa **bertsolaria laguntzen** saiatu naiz.
- **Isiltasuna** zaindu dut.
- **Adi egon** naiz. **Jarrera baikorrez**, jasotzeko gogoz entzun dut.
- Bertsolariak egindako lana **txaloz** eskertu dut.



Hobetzen ari naiz




- Publiko gisa **bertsolariari distantzia** agertu diot.
- Isiltasun tartetean albokoarekin **xuxurlaka** aritu naiz.
- **Jarrera neutroz** entzun dut.
- Bertsoa **gustatu zaidanean txalotu** dut eta bestela ez.



Jarrera aldatzea komeni zait



- Publiko gisa **bertsolariari aurkako jarrera** agertu diot.
- Edozein unetan **hitz egin** dut, xuxurlaka zein ahots gora.
- **Jarrera axolagabez** entzun dut. **Aurpegi txarrak** ere jarri ditut.
- **Ez dut** bertsorik **txalotu**.




. Sortzaile .

Primeran egin dut




- Hautatu ditudan **oinek hoskidetasun handia** dute.
- Oinak **puntuaren amaieran** jarri ditut.



Hobetzen ari naiz




- Hautatu ditudan oinek hoskidetasun txikia dute: **soilik azken letra** dute hoskidea.



Erdipurdi irten zait



- **Oinak ez ditut puntuaren amaieran jarri**, esaldian zehar sartu ditut.



Errimatzea




Neurtzea

Primeran egin dut




- Doinuan hitzak **ondo neurtuta** sartu ditut. Ez dut egin ez hankaluzerik eta ez hankamotzik.



Hobetzen ari naiz




- **Hankaluzea edo hankamotza** egin dut eta **jabetu naiz**.
- **Konponbidea jarri diot** hankaluzeari edo hankamotzari.



Erdipurdi irten zait



- Hankaluzea edo hankamotza egin dut eta **ez naiz jabetu**.
- **Ez diot konponbiderik jarri** hankaluzeari edo hankamotzari.




Mezua

Primeran egin dut




- **Nik esan nahi nuena bertsotan adieraztea lortu dut:** esaldiak neurtuz eta errimatuz, eta mezua publikoak ulertzeko moduan formulatuz.
- Esan dudana **egokia** da **testuinguru** horretan.



Hobetzen ari naiz




- Nire mezua modu ulergarrian eman dut, baina **ondo neurtu gabe edo errimatu gabe**.
- Ez dut lortu nire mezua bertsotara ekartzea, eta **beste ideia bat asmatu behar izan dut**.



Erdipurdi irten zait



- Nire mezua **ez dut era ulergarrian formulatu**.
- Nire mezua **ez da egokia** izan **testuinguru** horretarako.




. Bertsolari .

Primeran egin dut




- **Doinua osorik abestu** dut. Melodiaren gora-beherak gauzatu ditut.
- **Afinatu** dut.
- **Bolumen egokian** abestu dut, publikoak entzuteko moduan.
- Garbi **ahoskatu** ditut hitzak.



Hobetzen ari naiz




- Doinuaren **zati batean nahasi egin** naiz. Lagundu didatenean itzuli naiz melodiara.
- **Zati batean desafinatu egin** dut.
- **Bolumen altuegian** abestu dut.
- **Hitz bat ahoskatzean** trabatu egin naiz.



Erdipurdi irten zait



- Abesterakoan doinua **ahaztu zait**. Laguntza behar izan dut osorik abesteko.
- **Desafinatu** dut doinuan zehar.
- **Bolumen baxuegian** abestu dudalako, publikoak ez du ulertu.
- **Hitzak ahoskatu ez** ditudalako, publikoak ez du ulertu.



Kantaera




Gorputz jarrera

Primeran egin dut




- **Jarrera baikorrez**, gogotsu agertu naiz jendaurrean.
- **Oholtzan nire lekua** bete dut.
- **Aurpegia publikoari emanaz** egon naiz eta halaxe abestu dut.
- **Kantuan akatsik** egin dudanean, **jarrera baikor** horri eutsi diot.
- Bertsoa erabat amaitu arte nire lekuan egon naiz. **Txaloak jaso** egin ditut oholtzan, esker onez.



Hobetzen ari naiz



- **Jarrera ezkorrez**, lotsati, beldurtuta edo harropuztuta agertu naiz jendaurrean.
- Oholtzan **nire lekutik atera** naiz, batera eta bestera mugituz.
- **Publikoari bizkarra** eman diot edo lurrera edo sabaira begira abestu dut.
- Kantuan akatsik egin dudanean, **jarrera ezkorra** hartu dut.
- **Bertsoa amaitu aurretik** edo txalotu nautenean **ihes** egin dut oholtzatik.



Erdipurdi irten zait



- **Ez naiz ausartu jendaurrera irtetera.** Lagunduta abestu dut edo beste batek abestu ditu nik egindako bertsoak.

